

3.-FUNTSEZKO ERLAZIOAK

Gure proiektuak modu egoki eta seguru batean funtziona dezan, baliabide egoki batzuk erabiltzen saiatu behar gara. Horretarako, gure proiekturako bazkideak lortu beharko ditugu. Horrela, lanak erraztu eta kalitate hobean egitea lortuko dugu. Bazkide bakoitzak ideia bat edo plan bat badauka, ideia horiek guztiekin proiektu bikain bat lortu dezakegu. Talde lanean aritu ezkerro, bakarka aritzean baina errazago lan egingo dugu, taldekideen babesak asko laguntzen baitu. Eta taldekideak konfiantzazkoak badira, oraindik eta proiektu hobea egiteko aukerak edukiko ditugu.

Bazkide bakoitzak, proiektuko atal ezberdinetan gaitasun desberdinak edukiko ditu, kalitate ezberdinak egongo dira eta horiei probetsua ateratzen saiatu beharko gara emaitza hobe bat lortu ahal izateko. Bakoitzaren gaitasunak zer atal egiteko balio duten dakigunean eta bakoitza zer ataletan gustuen lan egingo duen argitzen dugunean lana banatu dezakegu. Horrela, guztiok berdina egin beharrean, bakoitzak dituen gaitasunak erabiliz daukagun lana aurrezteko lortuko dugu.

Kasu honetan, diseinu pertsonalizatuak sortzeko gaitasuna dugu batzuk, besteek, aldiz, organizazio maila altua. Azkeneko hau oso garrantzitsua baita proiektu bat aurrera eramateko orduan.

Bazkideren batek uneren batean laguntza behar izango balu, gainontzeko taldekideak laguntza eskaintzeko prest egongo gara. Talde lanean aritzen bagara, indar handiagoa edukiko dugu momentu guztietan eta proiektua aurrera eramatea lortuko dugu azkenik emaitza on bat lortuz.